

# 2019-2023

## LEGEALDIRAKO KUDEAKETA PLANA

## PLAN DE GESTIÓN PARA LA LEGISLATURA

TOLOSA

# AURKIBIDEA
## ÍNDICE


| | |
|---|---|
| **Sarrera** Introducción | 03 |
| **Gure xedea** Nuestro objetivo | 04-05 |
| **Gure ikuspegia** Nuestra visión | 06-07 |
| **Gure balioak** Nuestros valores | 08-09 |
| **Udal egitura berria** Nueva organización municipal | 10-11 |
| **Legealdirako Kudeaketa Plana** Plan de Gestión para la Legislatura | 14-75 |
| **Antolakuntza** Organización | 22-31 |
| **Herritarrak** Ciudadanía | 32-51 |
| **Lurraldea** Territorio | 52-75 |






Udala garai berrietara egokitu eta administrazioa arintzeko beharrari erantzunez ezarri da udal egitura berria Tolosako Udalean, udal funtzionamendua arindu eta erabakiak modu azkarrago eta eraginkorragoan hartzeko helburuarekin.

Tolosako Udalak egungo errealitate eta beharrei erantzungo dien administrazio modernoa izan behar du, egokitzeko gaitasuna duena, irekia, proaktiboa eta gertukoa. Kalitatezko antolakuntzak zerbitzu hobea eta eraginkorragoa eskaintzen lagunduko digu, tolosarrei erraztasunak emateko.

Egitura berriaren baitan, egungo erronkei eta proiektu berriei aurre egiteko eta horiek plangintza zehatz baten pean garatzeko, 2019-2023 Legealdirako Kudeaketa Plana garatu da. Jarraian zehaztasunez aurkeztuko dena.

La nueva organización municipal del Ayuntamiento de Tolosa responde a la necesidad del Consistorio de adaptarse a los nuevos tiempos y de aligerar la administración, con el objetivo de que el funcionamiento municipal se agilice y se puedan tomar decisiones de forma más rápida y eficaz.

Tolosa necesita una administración moderna, abierta, proactiva y cercana que responda a las realidades y necesidades actuales, que sea capaz de adaptarse. Una organización de calidad nos ayudará a ofrecer un servicio mejor y más eficaz, para dar facilidades a las y los tolosarras.

En el marco de la nueva organización, para hacer frente a los actuales retos y a los nuevos proyectos y para desarrollarlos dentro de una planificación, se ha elaborado el Plan de Gestión para la Legislatura 2019-2023 que se detalla a continuación.

# GURE XEDEA
## NUESTRO OBJETIVO

**Udal eskumen guztiez baliatuz herritarrei zerbitzu on bat ematea**

izango da legealdi honetan gure helburu eta jarduerarik nagusiena, eskainiko diren zerbitzuekin herritarren beharrizanak asetzeko, udal baliabideak eraginkortasunez eta zintzotasunez kudeatuz.

Dar un buen servicio a la ciudadanía valiéndonos de todas las competencias municipales

este será nuestro principal objetivo y cometido en esta legislatura, para satisfacer las necesidades de la ciudadanía por medio de los servicios prestados, gestionando con eficacia y honestidad los recursos municipales.



# GURE IKUSPEGIA
## NUESTRA VISIÓN

### Pertsonak erdigunean jartzen dituen herri administrazio eta eredua

sustatuko ditugu 2019-2023 legealdi honetan tolosarrak udal jardunaren eta udalgintzaren protagonistak bilakatuz, pertsonak izan daitezen etorkizuneko Tolosaren oinarri nagusia.

Ikuspegia, misioarekin batera, legealdi honetan zehar gure hausnarketak eta jarduerak bideratu dituzten elementuak izango dira.

### Una administración local y un modelo de ciudad que sitúa en el centro a las personas

es lo que fomentaremos en esta legislatura 2019-2023, convirtiendo a las y los tolosarras protagonistas de la actividad y la labor municipal, para que las personas sean la base principal de la Tolosa del futuro.

Nuestra visión, junto con nuestra misión, serán los elementos que encauzarán todas nuestras reflexiones y actividades durante esta legislatura.





# **BALIOAK**
# VALORES

**Tolosarrak dira gure lanaren, kudeaketaren eta herri proiektuaren ardatza.
Oinarri horretatik abiatuta, gure nortasun eta lan ereduaren adierazle izango dira ondorengo balioak:**



**ZINTZOTASUNA** une oro herritarrekin zintzo jokatzeko konpromisoa hartzen dugu.

**ELKARLANA** gure jarduna elkarlanean eta gertutasunean oinarrituko dugu.

**ERAGINKORTASUNA** udal baliabideak eraginkortasunez kudeatuko ditugu herritarrei zerbitzurik egokiena eskaini eta tolosarren beharrei erantzuteko.

Las y los tolosarras son el eje de central de nuestra labor, gestión y nuestro proyecto para Tolosa.
Partiendo de esa base, los siguientes valores serán nuestra seña de identidad y la de nuestro modelo:

**HONESTIDAD** nos comprometemos a trabajar, en todo momento, de forma honesta con la ciudadanía.

**COLABORACIÓN** basaremos nuestro trabajo en la colaboración y la cercanía.

**EFICIENCIA** gestionaremos los recursos municipales de forma eficiente para prestar un servicio mejor a la ciudadanía y responder a las necesidades de las y los tolosarras.

# UDAL EGITURA BERRIA
## NUEVA ORGANIZACIÓN MUNICIPAL



### ANTOLAKUNTZA

- **Giza Baliabideak**
- **Idazkaritza**
- **Herritarren arreta: Udate**
- **Ogasuna**
- **Informatika**
- **Kontratazioa**
- **Ondarea**
- **Udaltzaingoa**

### ORGANIZACIÓN

- Recursos humanos
- Secretaría
- Atención ciudadana: Udate
- Hacienda
- Informática
- Contratación
- Patrimonio
- Policía local

### HERRITARRAK

- **Gizarte Zerbitzuak eta Osasuna**
- **Garapen Ekonomikoa: enpleguaren sustapena, merkataritza, azokak eta turismoa**
- **Berdintasuna**
- **Euskara**
- **Kultura eta festak**
- **Kirola**
- **Hezkuntza**
- **Gazteria**
- **Komunitatea eta Gobernantza**

### CIUDADANIA

- Servicios sociales y Salud
- Desarrollo económico: fomento del empleo, comercio, mercados y turismo
- Igualdad
- Euskera
- Cultura y fiestas
- Deporte
- Educación
- Juventud
- Comunidad y Gobernanza

### LURRALDEA

- **Hirigintza**
- **Obrak eta zerbitzuak**
- **Trantsizio energetikoa**
- **Mugikortasuna**
- **Ingurumena**

### TERRITORIO

- Urbanismo
- Obras y servicios
- Transición energética
- Movilidad
- Medioambiente

Udal egitura berriaren helburu nagusia da udala garai eta behar berrietara egokitzea, erabaki-hartzeak azkartzea eta udal funtzionamendua arintzea tolosarrei zerbitzu hobea eta erantzun azkarragoa eta eraginkorragoa emateko.

Lan egitura berria gardenagoa, arinagoa, eraginkorragoa, zeharkakoagoa, irekiagoa eta malguagoa da eta horrek udal baliabideak optimizatzea eta kudeaketa eraginkor eta gardenago baten aldeko urratsak egitea ahalbidetzen du herritarren zein garai berrien eskakizunei modu egokiagoan erantzuteko.

Egitura berria 3 lan arlo nagusitan banatuta dago: Antolakuntza, Herritarrak eta Lurraldea. Hiru arloetako Batzorde Informatzaileak hilean behin ospatzen dira eta horietan kudeaketa txostenak aurkezten dira hilabete horri dagokion informazio guztiarekin. Halaber, astero-astero lan arlo bakoitzeko lan bilerak ere egiten dituzte politikari eta teknikari arduradunek eta hiru lan talde horiek koordinatzen dituen Zuzendaritza Talde mistoa, politiko-teknikoz osatua, astero biltzen da.

El principal objetivo de la nueva organización municipal es adaptar el ayuntamiento a los nuevos tiempos, acelerar la toma de decisiones y agilizar el funcionamiento municipal, para dar a las y los tolosarras un mejor servicio y una respuesta más rápida y eficaz.

La nueva estructura organizativa es más transparente, ligera, eficaz, transversal, abierta y flexible y ello permite optimizar los recursos municipales y dar pasos hacia una gestión más eficaz y transparente para responder de forma más adecuada a las exigencias de la ciudadanía y a los nuevos tiempos.

La nueva organización se divide en 3 areas: Organización, Ciudadanía y Territorio. Las Comisiones Informativas de cada una de dichas áreas se celebran una vez al mes y en las mismas se presentan los informes de gestión con toda la información relativa a ese mes. Asimismo, las y los responsables y técnicos de las áreas realizan reuniones semanales. También lo hace el Equipo de Dirección mixto, formado por personal técnico y político, que coordina las tres áreas.

# LEGEALDIRAKO KUDEAKETA PLANA

Udal egitura berria oinarri hartuta garatu da 2019-2023 Legealdirako Kudeaketa Plana.

Plan hori garatzeaz politikari eta teknikoez osatutako lan taldea arduratu da, prozesu osoa alkatetzak gidatuta.

Legealdirako Planak estrategikoak diren lan lerroak eta helburuak zehazten ditu, baita datozen lau urteetan garatuko diren ekintza eta proiektuak ere eta, modu berean, Tolosatzen prozesuan landutako egitasmo eta proiektuak ere barnebiltzen ditu, herritarrekin partekatutako plangintza izan dadin.

Beraz, planak udalaren ibilbide orria zehazten du eta udalaren jarduera modu ordenatu eta arrazoizko batean antolatu. Hortaz, lanerako tresna baliagarria da eta hainbat onura ekartzen ditu: sail bakoitzeko helburuak ezarri eta lehenesten ditu, udal aurrekontuak erraztasun handiagoz egiteko aukera ematen du eta ekintzen betetze maila neurtzea ahalbidetzen du. Horrez gain, kudeaketa publikoan gardentasunaren eta parte hartzearen adierazgarri ere bada.

Gaiei jarraipen estuagoa emateko lan-tresna izango du Udalak eta horrek udal zerbitzuak aztertu eta hobetzeko aukera emango du, gabeziak identifikatu eta konponbideak emateko, hain zuzen ere.

Legealdirako Kudeaketa Plana ez da dokumentu itxia, zer garen eta zer izan nahi dugun ikuspegiari erantzuten dion plangintza da, momentuko beharrei erantzutea eta estrategikoak diren proiektuak garatzea helburu duena, ikuspegia etorkizunean jarrita.



# PLAN DE GESTIÓN PARA LA LEGISLATURA

El Plan de Gestión para la Legislatura 2019-2013 se ha desarrollado tomando como base la nueva organización municipal.

Un equipo formado por personal técnico y político se ha encargado de desarrollar el plan, proceso que ha sido liderado por alcaldía.

El Plan de Legislatura especifica las líneas de trabajo y los objetivos estratégicos, así como las acciones y proyectos que se llevarán a cabo a lo largo de los próximos 4 años y recoge, de la misma manera, los planes y proyectos trabajados en el proceso Tolosatzen, para que sea una planificación compartida con la ciudadanía.

Por tanto, el plan detalla la hoja de ruta del ayuntamiento y organiza la actividad municipal de una manera ordenada y razonable. Por tanto, es un herramienta de trabajo útil que tiene múltiples beneficios: establece y prioriza los objetivos de cada área, facilita la realización de los presupuestos y hace posible medir el nivel de cumplimiento de las acciones. Además es señal de transparencia y participación en la gestión pública.

El Ayuntamiento dispondrá de una herramienta para realizar un seguimiento más exhaustivo de los temas pudiendo así identificar posibles carencias para poder plantear soluciones y mejorar el servicio prestado a la ciudadanía.

El Plan de Gestión para la Legislatura no es un documento cerrado, es una planificación que responde a la visión de lo que somos y los que queremos ser, un plan cuyo objetivo es responder a las necesidades del momento y desarrollar los proyectos estratégicos, con la mirada puesta en el futuro.

# HELBURU ETA EKINTZA ESTRATEGIKOAK

## OBJETIVOS Y ACCIONES ESTRATÉGICAS





# ANTOLAKUNTZA

| HELBURU ESTRATEGIKOAK | | EKINTZA ESTRATEGIKOAK |
|---|---|---|
| **Udal eraginkor, erabakitzaile eta berdinzalea lortzea** | 1 | Kudeaketa eredu berria diseinatzea eta ezartzea |
| | 2 | Udal antolakuntzaren berritze plana garatzea |
| | 3 | Langileen prestakuntza plana diseinatu eta gauzatzea |
| | 4 | Udalaren modernizazio teknologikoaren plan estrategikoa aurrera eramatea |
| **Udal ondarea balioan eta erabilgarri jartzea** | 1 | Udal artxibo bakarra izatea eta kudeatzeko irizpideak onartzea |
| | 2 | Udal ondasunen inbentarioa osatzea |

# ORGANIZACIÓN

| OBJETIVOS ESTRATÉGICOS | | ACCIONES ESTRATÉGICAS |
|---|---|---|
| **Lograr un ayuntamiento eficaz, decisorio e igualitario** | 1 | Diseñar e implantar un nuevo modelo de gestión. |
| | 2 | Desarrollar el plan para renovar la organización municipal |
| | 3 | Diseñar e implantar el plan para la formación del personal |
| | 4 | Llevar adelante el plan estratégico para la modernización tecnológica del ayuntamiento |
| **Poner en valor y a disposición el patrimonio municipal** | 1 | Tener un único archivo municipal y aprobar los criterios de gestión |
| | 2 | Completar el inventario del patrimonio municipal |

# HERRITARRAK

| HELBURU ESTRATEGIKOAK | | EKINTZA ESTRATEGIKOAK |
|---|---|---|
| **Herritarren babes soziala sustatzea** | 1 | Gizarte Zerbitzuen euskal sistema publikoan eskaintzen diren prestazio eta zerbitzuetarako sarbidea bermatzea |
| | 2 | Herritarren gizarteratzea, autonomia eta gizarte ongizatea sustatzea |
| **Tokiko garapen ekonomikoa sustatzea** | 1 | Gazteen ekintzailetza eta enpresa txiki eta ertainen lehiakortasunean laguntzea |
| | 2 | Tokiko merkataritza eta ostalaritza bultzatzea |
| | 3 | Larunbateroko azokak behar berriei egokitzea |
| | 4 | Bisitariak artatzeko, hiri marka eta kanpoko proiekzioa garatzea |
| **Herritartasun aktiboa sustatzea** | 1 | Herri eragileen sarea indartzea |
| | 2 | Udal ondasunen erabilera optimizatzea |
| | 3 | Tolosako kultur, kirol eta aisialdia eskaintza aztertu eta eguneratzea |
| | 4 | Udal erakundea herritarrei zabaltzea |
| **Herritarren ahalduntzea** | 1 | Tolosako emakumeen ahalduntzea sustatzea |
| | 2 | Tolosatzen Eskola Irekia martxan jartzea |

# CIUDADANÍA

| OBJETIVOS ESTRATÉGICOS | | ACCIONES ESTRATÉGICAS |
|---|---|---|
| **Fomentar la protección social de la ciudadanía** | 1 | Garantizar el acceso a las prestaciones y servicios que ofrece el sistema público vasco de Servicios Sociales |
| | 2 | Fomentar la inclusión social, la autonomía y el bienestar social de la ciudadanía |
| **Fomentar el desarrollo económico local** | 1 | Apoyar el emprendimiento de las y los jóvenes y la competitividad de la pequeña y mediana empresa |
| | 2 | Impulsar el comercio y la hostelería local |
| | 3 | Adaptar el mercado de los sábados a las nuevas necesidades |
| | 4 | Desarrollar la marca de ciudad y la proyección exterior para atender a las y los visitantes |
| **Impulsar una ciudadanía activa** | 1 | Reforzar la red de agentes del municipio |
| | 2 | Optimizar el uso del patrimonio municipal |
| | 3 | Analizar y actualizar la oferta cultural, deportiva y de ocio de Tolosa |
| | 4 | Abrir la institución municipal a la ciudadanía |
| **Promover el empoderamiento de la ciudadanía** | 1 | Fomentar el empoderamiento de las mujeres de Tolosa |
| | 2 | Poner en marcha la Escuela Abierta Tolosatzen |

# LURRALDEA

| HELBURU ESTRATEGIKOAK | | EKINTZA ESTRATEGIKOAK |
|---|---|---|
| **Espazio publikoa eta udal eraikinak baldintza hoberenetan mantentzea** | 1 | Espazio publikoa mantentzeko kudeaketa sistema berria diseinatu eta ezartzea |
| | 2 | Udal eraikinak mantentzeko kudeaketa sistema berria diseinatu eta ezartzea |
| **Herriko irisgarritasuna eta mugikortasuna hobetzea** | 1 | Irisgarritasun Plana idaztea eta lehentasunak identifikatu eta gauzatzea |
| | 2 | Mugikortasun Planeko lehentasunak identifikatu eta gauzatzea |
| | 3 | Aparkaleku beharrak aztertu eta irtenbideak proposatzea |
| **Hiri-berroneratze integratua bultzatzea** | 1 | Zumardi Txikia berreskuratzea |
| | 2 | Eraikitako etxebizitza eraikinak birgaitzeko eta berrerabiltzeko neurriak hartzea |
| | 3 | San Esteban eremuaren berroneratzea |
| | 4 | RC-2 gunearen berroneratzea |
| | 5 | Santa Luzia-Guadalupe eremuaren berroneratzea |
| **Udal ekipamenduen plangintza gauzatzea** | 1 | Ekintzen eta obren programazioa egitea faseka |
| | 2 | Lehen faseko proiektuak idaztea |
| **Udalerriko ingurumen jasangarritasuna hobetzea** | 1 | Aldaketa klimatikoaren aurkako plangintza egitea |
| | 2 | Udal eraikinen, ibilgailuen eta argiztapen publikoko instalazioen eraginkortasun energetikoa hobetzea |
| | 3 | Auzoetako etorkizunaren azterketa egitea |
| | 4 | Kontsumo arduratsua eta hondakinen kudeaketa hobetzea |
| | 5 | Zarataren ordenantza garatzea |
| | 6 | Plan Orokorraren berrikuspena martxan jartzea |

# TERRITORIO

| OBJETIVOS ESTRATÉGICOS | | ACCIONES ESTRATÉGICAS |
|---|---|---|
| **Mantener el espacio público y los edificios municipales en las mejores condiciones** | 1 | Diseñar e implantar un nuevo sistema de gestión para el mantenimiento del espacio público |
| | 2 | Diseñar e implantar un nuevo sistema de gestión para el mantenimiento de los edificios municipales |
| **Mejorar la accesibilidad y movilidad del municipio** | 1 | Redactar el Plan de Accesibilidad e identificar y ejecutar las prioridades |
| | 2 | Identificar y ejecutar las prioridades del Plan de Movilidad |
| | 3 | Estudiar las necesidades de aparcamiento y proponer soluciones |
| **Fomentar la regeneración urbana integrada** | 1 | Recuperar Zumardi Txiki |
| | 2 | Tomar medidas para rehabilitar y reutilizar edificios de viviendas construidas |
| | 3 | Regeneración de la zona de San Esteban |
| | 4 | Regeneración de la zona RC-2 |
| | 5 | Regeneración de la zona Santa Luzia-Guadalupe |
| **Realizar la planificación de los equipamientos municipales** | 1 | Realizar programa de actividades y obras por fases |
| | 2 | Redactar los proyectos de la primera fase |
| **Mejorar la sostenibilidad medioambiental del municipio** | 1 | Realizar una planificación contra el cambio climático |
| | 2 | Mejorar la eficiencia energética de los edificios y vehículos municipales y las instalaciones del alumbrado público |
| | 3 | Realizar un estudio sobre el futuro de los barrios rurales |
| | 4 | Mejorar el consumo responsable y la gestión de residuos |
| | 5 | Desarrollar la ordenanza de ruidos |
| | 6 | Poner en marcha la revisión del Plan General |

# 1 UDAL ERAGINKOR, ERABAKITZAILE ETA BERDINZALEA LORTZEA

## LOGRAR UN AYUNTAMIENTO EFICAZ, DECISORIO E IGUALITARIO

Legealdi honetako udal honen erronka garrantzitsuenetarikoa administrazioa eraginkorragoa, erabakitzaileagoa eta berdinzaleagoa bilakatzea da, herritarren beharrei erantzuteko, zerbitzuen kalitatearen etengabeko hobekuntzan jardunez eta administrazioa pertsonen beharretara egokituz eta ez alderantziz.

Genero zeharkakotasuna barne-kulturan txertatzen jarraituko da politika publikoen diseinuan eta garapenean ikuspegi feminista barneratua egon dadin egitura, administrazio eta kudeaketa baldintzei dagokienean, udal jarduera hobetuz, Tolosako Udalak berdintasunarekin duen konpromisoa sendotuz eta haren antolakuntza-kultura berraztertuz, esku-hartze publiko eraginkorragoa, parekideagoa eta berdintasunezkoa errazteko.

Lograr un ayuntamiento más eficiente, decisorio e igualitario será uno de los principales retos de esta legislatura. Todo ello con el objeto de responder a las necesidades de la ciudadanía, mejorando de forma continua los servicios y adaptando la administración a las personas y no al contrario.

Se seguirá incorporando transversalmente el género en la cultura interna para que la perspectiva feminista esté interiorizada en el diseño y desarrollo de las políticas públicas, en lo que se refiere a las condiciones de organización, administración y gestión, mejorando la actividad municipal, fortaleciendo el compromiso que tiene el Ayuntamiento de Tolosa con la igualdad y revisando su cultura de organización para facilitar una intervención pública más eficaz, paritaria e igualitaria.




## 1.1 KUDEAKETA EREDU BERRIA DISEINATZEA ETA EZARTZEA

### DISEÑAR E IMPLANTAR UN NUEVO MODELO DE GESTIÓN

Kudeaketa eredu berria ezarri aurretik, antolakuntza egiturari eta udal funtzionamenduari buruzko hausnarketa eta diagnosia egin da. Kudeaketa eredu berriak, modu eraginkorragoan lan egiteko, antolamendua sinplifikatzeko eta sailen arteko komunikazio eta koordinazioa hobetzeko balio du eta lan metodologia zehatza ere dakar (ekintzak, lehentasunak, ardurak, epeak…) eta beraz, jarraipena eta ebaluazioa egiteko aukera ere eskaintzen du hileroko kudeaketa txostenari esker.

Antes de implantar el nuevo modelo de gestión, se ha realizado una reflexión y un diagnóstico de la estructura organizativa y de su funcionamiento. El nuevo modelo de gestión permite simplificar la organización y mejorar la comunicación y la coordinación entre los diferentes departamentos para trabajar de una manera más eficiente, y trae consigo también una metodología concreta de trabajo (acciones, prioridades, responsabilidades, plazos...) y, por tanto, ofrece la oportunidad de realizar un seguimiento y una evaluación continua, gracias al informe de gestión mensual.

# 1.2 UDAL ANTOLAKUNTZAREN BERRITZE PLANA GARATZEA

## DESARROLLAR EL PLAN PARA RENOVAR LA ORGANIZACIÓN MUNICIPAL



Udalaren behar berriei erantzuteko udalaren giza baliabideen ordenazio plana garatuko da plantillaren adinaren araberako diagnostiko ebolutiboa eginez eta, beharrezkoa den kasuetan, plantilla handitzeko neurriak hartuz.

Giza baliabideak ahalik eta modurik onenean hornitu eta antolatzeko eta udalak ematen dituen zerbitzuen eraginkortasuna eta kalitatea hobetzeko, lanpostuen balorazioa egingo da garai berriekin bat datorren organigrama finkatzeko. Halaber, Enplegu Plana gauzatuko da langilegoa hautatzeko prozesuak garatuz eta enplegua egonkortzeko neurriak aplikatuz, legedia betez. Udal barruko intraneta ere sortuko da.

Era berean, UDATE, Herritarrentzako Arreta Zerbitzu integrala indartu eta sendotuko da. Zerbitzu honen bitartez herritarrari udal-zerbitzu gehienak (informazioa, tramitazioa eta kudeaketa), bai aurrez-aurre, telefonoz zein telematikoki, era integralean eskaintzen zaizkio.

Para dar respuesta a las nuevas necesidades del ayuntamiento, se desarrollará el plan para la ordenación de los recursos humanos realizando un diagnostico evolutivo de la plantilla según la edad y, cuando sea necesario, se tomarán medidas para ampliar la plantilla.

A fin de abastecer y organizar los recursos humanos de la mejor manera y para mejorar la eficiencia y la calidad de los servicios que presta el ayuntamiento, se realizará una valoración de puestos de trabajo con el objetivo de establecer un organigrama que se corresponda con los nuevos tiempos. Asimismo, se llevará acabo el Plan de Empleo, desarrollando los procesos para seleccionar personal y aplicando medidas para la estabilidad en el empleo, cumpliendo con la legalidad.

De la misma manera, se reforzará UDATE, el Servicio Integral de Atención Ciudadana. Mediante este servicio se ofrecen a la ciudadanía de forma integral la mayoría de los servicios municipales (información, tramitación y gestión) tanto presencialmente como por teléfono o de forma telemática.

# 1.3 LANGILEEN PRESTAKUNTZA PLANA DISEINATU ETA GAUZATZEA
## DISEÑAR E IMPLANTAR EL PLAN PARA LA FORMACIÓN DEL PERSONAL



Herritarrei eskainitako arreta eta zerbitzua hobetzeko, udal langileen etengabeko prestakuntza sustatuko da, haien gaitasun profesionalen eguneratzea ere bultzatzeko.

Gauzak horrela, lehenik eta behin, egungo egoeraren diagnosia egingo da eta ondoren formazio plana diseinatu.

Se promoverá la formación continua del personal municipal para mejorar la atención y el servicio a la ciudadanía. Se impulsará, asimismo, la actualización de sus capacidades profesionales.

Así las cosas, en primer lugar, se realizará el diagnóstico de la situación actual y después se diseñará el plan de formación.

# 1.4 UDALAREN MODERNIZAZIO TEKNOLOGIKOAREN PLAN ESTRATEGIKOA AURRERA ERAMATEA
## LLEVAR ADELANTE EL PLAN ESTRATÉGICO PARA LA MODERNIZACIÓN TECNOLÓGICA DEL AYUNTAMIENTO



Egungo egoeraren diagnosia egin ostean, sistema informatiko homogeneo eta bakarra ezarriko da udaletxe osoan udal funtzionamendua erraztu eta arintzeko, segurtasunean eta eraginkortasunean urratsak egiteko eta gainerako administrazioekiko komunikazio eta harreman egokiak bermatzeko.

Halaber, sinadura eta espediente elektronikoen erabilera sail guztietara hedatuko da, herritarrei kontsultak elektronikoki egiteko aukera eman eta zuntz optikoaren eta wifi sarearen erabilera ere udal eraikin guztietara zabalduko da. Horretarako plan estrategikoa garatuko da.

Tras realizar el diagnóstico de la situación actual, se implantará un sistema informático homogéneo y único en todo el ayuntamiento para facilitar el funcionamiento municipal, dar pasos hacia la eficiencia y garantizar una comunicación y una relación adecuada con las demás administraciones.

Se extenderá la firma y el expediente electrónico a todos los departamentos, se ofrecerá la posibilidad a la ciudadanía de realizar consultas de forma electrónica y se implantará la fibra óptica y el wifi en todos los edificios municipales. Se desarrollará un plan estratégico para todo ello.

# 2 UDAL ONDAREA BALIOAN ETA ERABILGARRI JARTZEA

## PONER EN VALOR Y A DISPOSICIÓN EL PATRIMONIO MUNICIPAL

Udal eraginkorragoa lortze aldera, udal ondarearen inguruko inbentarioa egin eta artxibo bakarra sortuko da informazioa modu bateratuan eta guztien eskura egon dadin.

Con el objetivo de lograr un ayuntamiento más eficiente, se realizará el inventario del patrimonio municipal y se creará un archivo único, para que la información esté unificada y a disposición de todas y todos.



## 2.1 UDAL ARTXIBO BAKARRA IZATEA ETA KUDEATZEKO IRIZPIDEAK ONARTZEA
TENER UN ÚNICO ARCHIVO MUNICIPAL Y APROBAR LOS CRITERIOS DE GESTIÓN

Informaziorik ez galtzeko, sistema bateratua ezarriko da sail guztietan udal langileek informazioa gune berean eskuragarri izan dezaten.

Para no perder información, se implantará un sistema unificado en todos los departamentos, para que el personal municipal tenga a su disposición toda la información en el mismo lugar.



## 2.2 UDAL ONDASUNEN INBENTARIOA OSATZEA
COMPLETAR EL INVENTARIO DEL PATRIMONIO MUNICIPAL

Egun udal ondasunen inbentarioa sail ezberdinetan banatua dago eta beraz, informazio hori bateratzeko beharra ikusi da. Horretarako egungo dokumentazioaren bilketa eta ondasunen ikerketa egingo da eta dokumentu bateratu bat sortu, aplikazio informatiko baten bitartez, sail guztiek eskura izango dutena.

En la actualidad el inventario del patrimonio municipal está dividido en diferentes departamentos y, por tanto, se ha visto la necesidad de unificarlo. Para ello se recopilará la documentación actual, se realizará una investigación de los bienes y se creará un documento unificado a través de una aplicación informática que todos los departamentos tendrán a su disposición.

# HERRITARREN BABES SOZIALA SUSTATZEA

# FOMENTAR LA PROTECCIÓN SOCIAL DE LA CIUDADANÍA

Tolosarren ongizatea lehentasunezkoa izango da. Horretarako, integrazioa eta zahartzaro aktiboa eta osasungarria sustatzeko programak lehenetsiko dira eta berriak martxan jarri herritarren behar berriei erantzuteko, etorkizuneko erronkei aurre hartuz.

El bienestar de las y los tolosarras será prioritario. Para ello se priorizarán los programas para fomentar la integración y el envejecimiento activo y se pondrán en marcha nuevas iniciativas para responder a las nuevas necesidades, adelantándonos así a los retos del futuro.



# 1.1 GIZARTE ZERBITZUEN EUSKAL SISTEMA PUBLIKOAN ESKAINTZEN DIREN PRESTAZIO ETA ZERBITZUETARAKO SARBIDEA BERMATZEA

## GARANTIZAR EL ACCESO A LAS PRESTACIONES Y SERVICIOS QUE OFRECE EL SISTEMA PÚBLICO VASCO DE SERVICIOS SOCIALES

Gizarte Zerbitzuen mapan jasotako prestazioak osatze ta hobetze aldera, bazterkeria eta menpekotasun egoeran dauden pertsonen arreta zerbitzua hobetuko da Abegi zentroaren bitartez, gaueko zein eguneko zerbitzua martxan jarriz. Adineko pertsonen eguneko arreta zerbitzua indartuko da eta zerbitzu osagarriak ere areagotuko dira.

Con el fin de completar y mejorar las prestaciones recogidas en el Mapa de Servicios Sociales, se mejorará el servicio de atención a personas en situación de exclusión o dependencia a través del centro Abegi, poniendo en marcha el servicio diurno y nocturno. Se reforzará el servicio de atención de día de las personas mayores y también se ampliarán los servicios complementarios.



# 1.2 HERRITARREN GIZARTERATZEA, AUTONOMIA ETA GIZARTE ONGIZATEA SUSTATZEA

## FOMENTAR LA INCLUSIÓN SOCIAL, LA AUTONOMÍA Y EL BIENESTAR SOCIAL DE LA CIUDADANÍA

Adikzioen aurkako Tokiko Plana eguneratuko da egungo beharrei erantzun egokiagoa emateko eta esku-hartze komunitarioa indartzeko laguntza sarea sustatuko da boluntariotza eta elkartegintza lagunduz.

Se actualizará el Plan Local contra las adicciones con el fin de dar una mejor solución a las necesidades actuales. Asimismo, se impulsará la red de ayuda para reforzar la participación comunitaria mediante ayudas al voluntariado y el asociacionismo.

# 2 TOKIKO GARAPEN EKONOMIKOA SUSTATZEA
## FOMENTAR EL DESARROLLO ECONÓMICO LOCAL

Ekonomia sustatzea funtsezkoa da herritarren ongizatea eta gizarte ongizatea bermatzeko. Hori dela eta, tokikoa babestu eta garapen ekonomikoa sustatzea lehentasunezkoa izango da eta horretarako ekimen berriak abiarazi eta kalitatezko enplegua sustatuko da eragile eta erakunde ezberdinekin elkarlanean udalaren esku dauden azpiegitura, zerbitzu eta bitartekoak sortuz.

Industria eskualdeko motorra izanik, enpresengandik gertu egotea ere garrantzitsua izango da eta aurreko legealdian abiarazitako ekimenei jarraipena emango zaie enpresen bidelagun izaten jarraitzeko.

Fomentar la economía es fundamental para garantizar el bienestar de la sociedad y de la ciudadanía. Por ello, proteger la economía local y promover el desarrollo económico será prioritario y para ello se pondrán en marcha nuevas iniciativas y se fomentará un empleo de calidad creando, en colaboración con distintos agentes e instituciones, infraestructuras y servicios, y poniendo a disposición de los agentes económicos los recursos disponibles.

Siendo la industria el principal motor de la comarca, será fundamental estar cerca de las empresas; se dará continuidad a las iniciativas emprendidas durante la pasada legislatura con el fin de seguir apoyando a las mismas.

## 2.1 GAZTEEN EKINTZAILETZA ETA ENPRESA TXIKI ETA ERTAINEN LEHIAKORTASUNEAN LAGUNTZEA
### APOYAR EL EMPRENDIMIENTO DE LAS Y LOS JÓVENES Y LA COMPETITIVIDAD DE LA PEQUEÑA Y MEDIANA EMPRESA

Lehiakortasunerako programak indartuko dira Eusko Jaurlaritza eta Foru Aldundiarekin elkarlanean eta udaletik eskainitako diru-laguntza lerroa mantenduko da tokiko enpresa txiki eta ertainek proiektu berritzaileak garatu ditzaten.

Langabezian dauden herritarrei lan aukera berriak eskaintzeko urtero Enplegu Plana babestuko da eta formaziorako ikastaro berriak eskainiko dira. Gazteen ekintzailetza sustatzeko Emari Coworking gunean ekintza berriak garatuko dira.




Se fortalecerán los programas para la competitividad en colaboración con el Gobierno Vasco y la Diputación Foral y se mantendrán las ayudas ofrecidas desde el Ayuntamiento para que las pequeñas y medianas empresas desarrollen nuevos proyectos.

Se apoyará el Plan de Empleo y se ofrecerán nuevos cursos de formación, con el fin de ofrecer a las personas desempleadas nuevas oportunidades de empleo. Se desarrollarán nuevas actividades en el espacio Emari Coworking para fomentar el emprendimiento de las y los jóvenes.

# 2.2 TOKIKO MERKATARITZA ETA OSTALARITZA BULTZATZEA
## IMPULSAR EL COMERCIO Y LA HOSTELERÍA LOCAL

Merkataritza eta ostalaritza funtsezkoak ditugu gure kaleak bizirik mantentzeko. Merkataritza eta ostalaritza sendoa duen hiri ereduaren defentsan, egungo zein etorkizuneko beharrei erantzuteko egitasmo eta programa berriak sustatuko ditugu merkatari eta ostalariekin elkarlanean. Ostalaritza ordenantza berria garatuko da, Tolosa&Co elkartearekin hitzarmena berrituko da, merkataritzak dituen erronkei aurre egiteko salmenta eredu berriak sustatu eta saltokien eskualdaketarako eta lehiakortasunerako programak indartuko dira eta lokal hutsak merkaturatzeko egitasmo berriak abiaraziko dira.



El comercio y la hostelería son fundamentales para mantener vivas nuestras calles. En defensa de un municipio con un modelo fuerte de comercio y hostelería, fomentaremos nuevas iniciativas y proyectos para dar respuesta a necesidades presentes y futuras en colaboración con las y los comerciantes y hosteleros. Se desarrollará una nueva ordenanza de hostelería, renovaremos el acuerdo con la asociación Tolosa&Co, se fomentarán nuevos modelos de venta para hacer frente a los retos del comercio, se reforzarán los programas para el relevo generacional y la competitividad de las tiendas y se pondrán en marcha nuevas iniciativas para la salida al mercado de locales vacíos.

# 2.3 LARUNBATEROKO AZOKAK BEHAR BERRIEI EGOKITZEA
## ADAPTAR EL MERCADO DE LOS SÁBADOS A LAS NUEVAS NECESIDADES



Gazteak azokara gerturatzea da erronkarik nagusiena, baita azoka bera ere bezeroen kontsumo ohitura berrietara egokitzea, azoka modernizatuz, duen nortasun propioa galdu gabe.

Horretarako, azoken ekosistema osatzen duten ekoizle, saltzaile eta bezeroen beharrei erantzungo zaie, ekintza plan zehatza garatuz eta promozio kanpaina eta azokaren inguruko produktu berriak sortuz.

Acercar a las personas jóvenes al mercado junto con la adaptación de la azoka a los nuevos hábitos de consumo de las y los clientes, es el principal reto en este ámbito y para ello se impulsará la modernización del mercado sin perder su identidad propia.

En respuesta a las necesidades de las y los productores, vendedores y clientes que conforman el ecosistema de los mercados se desarrollará un plan de acción concreto y se crearán nuevas campañas de promoción y nuevos productos relativos al mercado.

## 2.4 BISITARIAK ARTATZEKO, HIRI MARKA ETA KANPOKO PROIEKZIOA GARATZEA
DESARROLLAR LA MARCA DE CIUDAD Y LA PROYECCIÓN EXTERIOR PARA ATENDER A LAS Y LOS VISITANTES



Turismoa aukera bat da Tolosarentzat eragin zuzena duelako hiri-ekonomian. Hori dela eta azken urteotako estrategiari jarraiki eta egin den apustua berretsiz, Tolosaren kanpo proiekzioa garatuko da eta hiri marka indartu bisitari berriak erakartzeko. Horretarako, besteak beste, turismo bulego berria zabalduko da.

El turismo es una oportunidad para Tolosa porque repercute directamente en la economía local. Por ello, dando continuidad a la estrategia puesta en marcha durante los últimos años y ratificando la apuesta realizada, se ahondará en la proyección exterior de Tolosa y se reforzará la marca de ciudad para atraer a nuevas/os visitantes. Para ello, entre otras, se abrirá una nueva oficina de turismo.



# 3 HERRITARTASUN AKTIBOA SUSTATZEA
IMPULSAR UNA CIUDADANÍA ACTIVA

Tolosak izatez, izaera ekintzailea du, baita solidarioa ere. Herri bizia gara, euskalduna, parte-hartzailea, konprometitua eta aktiboa. Udalak baliabide eta egitasmo berriak abiarazi eta jarriko ditu herritarren eskura nortasun ikur ditugun horiek indartzeko eta Tolosa euskararen arnasgunea izan dadin tokiko hizkuntza politika eraginkorrak sustatuko dira.

Tolosa tiene, per se, una naturaleza emprendedora y también solidaria. Somos un municipio vivo, euskaldun, participativo, comprometido y activo. El Ayuntamiento impulsará nuevas iniciativas y pondrá a disposición de la ciudadanía nuevos recursos para fortalecer nuestra identidad propia y se fomentarán políticas lingüísticas eficientes para que Tolosa sea un “arnasgune” (espacio vital) del euskera.



## 3.1 HERRI ERAGILEEN SAREA INDARTZEA
### REFORZAR LA RED DE AGENTES DEL MUNICIPIO

Tolosak duen bizitasun eta dinamismoa, hein handi batean, eragile ezberdinen lanari esker da. Hori mantendu eta indartzeko, herri eragileen arteko elkar-ezagutza sustatu eta bereziki, beren arteko sinergiak bultzatuko dira elkarteen katalogoa garatuz eta gizarteratuz.

Eragileen jarduna babesteko diru-laguntzen inguruko ordenantza berraztertuko da eta formakuntza eskainiko da.

El dinamismo y la vida de Tolosa se deben, en gran parte, al trabajo de distintos agentes. Se promoverá que estos se conozcan entre sí y especialmente se impulsarán las sinergias entre ellas y ellos desarrollando y divulgando el catálogo de las asociaciones con el fin de mantener y fortalecer la vida y el dinamismo del municipio.

Se impulsará el trabajo de las y los agentes y grupos locales revisando la ordenanza de ayudas y ofreciendo formación y ayuda para su tramitación.



## 3.2 UDAL ONDASUNEN ERABILERA OPTIMIZATZEA
### OPTIMIZAR EL USO DEL PATRIMONIO MUNICIPAL

Tolosan talde eragile eta elkarte asko daude, herriari ekarpen izugarria egiten diotenak. Horregatik, udal baliabide eta eraikinen erabilerari buruzko azterketa egingo da (Abastos, Emeterio Arrese, Ferialekua…) horien erabilera zehaztu eta optimizatze aldera eta bereziki, elkarte eta taldeen jarduna babestu eta sustatzeko helburuarekin.

En Tolosa hay muchos grupos y asociaciones que hacen una gran aportación al municipio. Por ello, se realizará un estudio sobre el uso de los recursos municipales (Abastos, Emeterio Arrese, Ferial…) con el fin de definir y optimizar su uso y especialmente con el objeto de proteger y fomentar el trabajo de dichos grupos y asociaciones.

## 3.3 TOLOSAKO KULTUR, KIROL ETA AISIALDIA ESKAINTZA AZTERTU ETA EGUNERATZEA

### ANALIZAR Y ACTUALIZAR LA OFERTA CULTURAL, DEPORTIVA Y DE OCIO DE TOLOSA

Tolosa sortzailea sustatu eta kultur ekimena bultzatzeko urtean zehar antolatzen diren egitasmo eta egitarau ezberdinen inguruko diagnosia egingo da, gabeziak atzeman eta indartu beharreko puntuak identifikatzeko. Gazteak izanik etorkizunaren oinarria, haien partaidetza sustatzeaz gain, beren beharrak aztertuko dira aisialdi, kultur eta kirolari dagokionean, eskaintza beharretara egokitzeko.

Kirol esparruan, ariketa fisikoaren bitartez, bizitza osasungarria ere bultzatuko da, adin-tarte guztietako tolosarren artean, aisialdirako bizi ohitura eredugarriak eskainiz eta eragile ezberdinen parte hartzea sustatuz. Horretarako kirol instalazio eta ekipamenduen eskaintza ere egokitu eta indartuko da.

Se realizará un estudio sobre las iniciativas y los distintos programas que se organizan a lo largo del año para identificar las carencias y los puntos a reforzar con el objetivo de fomentar un municipio creativo y promover la actividad cultural. Siendo la juventud el pilar de nuestro futuro, además de impulsar su participación, se estudiarán sus necesidades en lo relativo al ocio, la cultura y el deporte con el fin de adaptar la actual oferta a sus peticiones.

En el ámbito deportivo se promoverán una vida y unos hábitos saludables entre las y los tolosarras de distintas edades por medio del ejercicio físico. Para ello se impulsará la participación de diferentes agentes y se adecuarán y reforzarán también las instalaciones y el equipamiento deportivo.



# 3.4 UDAL ERAKUNDEA HERRITARREI ZABALTZEA
## ABRIR LA INSTITUCIÓN MUNICIPAL A LA CIUDADANÍA



Udal administrazioa da herritarrengandik gertuen dagoen erakundea. Garai berriek gainera, udalarekin harremantzeko eredu berriak eskatzen dituzte, hori dela eta, udal politiketan partaidetzak eta gardentasunak gero eta indar gehiago hartu dute.

Gauzak horrela, gobernantza printzipioak udalaren eguneroko jardunean txertatzen jarraituko dira, komunikazio, gardentasun, gertutasun, partaidetza eta kontu emateari dagokionean.

Ildo horretatik, Gardentasun Ataria berrituko da bertan jasotako informazio modu ulerterrazean herritarrei helarazteko, udal zerbitzuen mapa osatuz eta berrituz, eta aurrekontuak herritarrekin lantzeko partaidetza metodologia berria erabiliko da eta herritarren partaidetza arautzeko ordenantza sortu.

La administración municipal es la institución más cercana a la ciudadanía. Los nuevos tiempos exigen nuevas formas de comunicación y relación con el ayuntamiento, por ello, la participación y la transparencia han adquirido cada vez más fuerza en las políticas municipales.

Así las cosas, en lo que respecta a la comunicación, la transparencia, la cercanía y la dación de cuentas se seguirán incorporando los principios de gobernabilidad al trabajo diario del Ayuntamiento.

Asimismo, se renovará el Portal de Transparencia con el fin de transmitir la información recogida en él de forma fácil y comprensible, completando y renovando el mapa de servicios municipales. También se utilizará una nueva metodología para elaborar los presupuestos con la ciudadanía y se creará una ordenanza reguladora para la participación ciudadana.

# 4 HERRITARREN AHALDUNTZEA
## PROMOVER EL EMPODERAMIENTO DE LA CIUDADANÍA





Herritarren ahalduntzerako erreminta berriak sortzea eta formazioa eskaintzea funtsezkoa da eta baita ere espazio berriak sortu eta herritarren eskura jartzea ere, bereziki herritartasunari eta berdintasunari begira.

Datozen urteetan berdintasun eta bizikidetzaren aldeko urratsak egiten jarraituko da, giza eskubideak eta printzipio etikoak oinarri izango dituen gizarte hezitzaileagoa, parekideagoa eta berdinzaleagoa eraikitzeko.

Crear nuevas herramientas, ofrecer formación y crear nuevos espacios y ponerlos a disposición de la ciudadanía es fundamental para su empoderamiento, especialmente de cara a la igualdad y al sentimiento de comunidad.

Durante los próximos años se seguirá avanzando hacia la igualdad y la convivencia a fin de construir una sociedad más educadora, paritaria e igualitaria que esté basada en los derechos humanos y los principios éticos.

## 4.1 TOLOSAKO EMAKUMEEN AHALDUNTZEA SUSTATZEA
### FOMENTAR EL EMPODERAMIENTO DE LAS MUJERES DE TOLOSA



Azken urteotan parekidetasun eta berdintasunaren alde emandako pausuei jarraiki Tolosaldeko Emakumeen Etxea eraikiko da, tokiko zein eskualdeko emakumeen ahalduntzerako.

Espazio berria erreferentziazko gunea izango da emakume guztientzat: elkar-ezagutzeko, elkarlanean ekimen berriak garatzeko eta antolatzeko, emakumeen topaketarako eta eztabaida eta hausnarketarako gunea izango da.

Se construirá la Casa de la Mujer de Tolosaldea para el empoderamiento de la mujer a nivel local y comarcal con el objetivo de seguir dando pasos a favor de la igualdad y la paridad.

Dicho espacio será un lugar de referencia para todas las mujeres, para conocerse entre sí, para desarrollar y organizar actividades de forma conjunta. Un lugar para el encuentro, el debate o la reflexión.

## 4.2 TOLOSATZEN ESKOLA IREKIA MARTXAN JARTZEA
### PONER EN MARCHA LA ESCUELA ABIERTA TOLOSATZEN

Partaidetza indartu eta herritar, eragile eta udalaren arteko elkarlan eta elkar-ezagutza sustatzeko harremanak sendotu eta herritarrak ahalduntzea funtsezkoa da. Horretarako, Eusko Jaurlaritzak eta hiru Foru Aldundiek koordinatutako nazioarteko proiektu pilotua abiaraziko da eragile eta elkarte ezberdinekin herri agenda partekatua osatzeko.

Tolosatzen
Eskola Irekia

Empoderar a la ciudadanía y fortalecer las relaciones y colaboración entre agentes, grupos locales y ayuntamiento es fundamental para fomentar la participación y el conocimiento mutuo. Para ello, se pondrá en marcha el proyecto piloto internacional "Tolosatzen Escuela Abierta" coordinado por el Gobierno Vasco y las tres Diputaciones Forales con el fin de crear una agenda local compartida con distintos agentes y asociaciones.

# 1 ESPAZIO PUBLIKOA ETA UDAL ERAIKINAK BALDINTZA HOBERENETAN MANTENTZEA

## MANTENER EL ESPACIO PÚBLICO Y LOS EDIFICIOS MUNICIPALES EN LAS MEJORES CONDICIONES

Herritarrei herri garbia, atsegina eta zaindua eskaintzea funtsezkoa da, dagoena balioan jarri eta mantentzea bezalaxe, horregatik, mantenu lanei garrantzia berezia emango zaie espazio publikoa eta udal eraikinak egoera hoberenean mantentzeko.

Ofrecer a la ciudadanía un municipio limpio, amable y cuidado es fundamental, al igual que lo es poner en valor y mantener lo que hay en él. Por ello, se dará especial importancia a los trabajos de mantenimiento con el fin de mantener el espacio público y los edificios municipales en las mejores condiciones.



# 1.1 ESPAZIO PUBLIKOA MANTENTZEKO KUDEAKETA SISTEMA BERRIA DISEINATU ETA EZARTZEA

## DISEÑAR E IMPLANTAR UN NUEVO SISTEMA DE GESTIÓN PARA EL MANTENIMIENTO DEL ESPACIO PÚBLICO

Helburu horrekin urtero plangintza zehatza diseinatuko da argiteriari, kale garbiketari, asfaltatzeari, lore zaintzari eta bestelako mantentze lanei dagokionean, aipatutako lanak era planifikatuan egiteko.



Con ese mismo objetivo cada año se diseñará una planificación concreta en lo que respecta a la iluminación, limpieza viaria, asfaltado, jardinería y otros trabajos de mantenimiento, de forma que estos también se lleven a cabo bajo una planificación anual.

# 1.2 UDAL ERAIKINAK MANTENTZEKO KUDEAKETA SISTEMA BERRIA DISEINATU ETA EZARTZEA

## DISEÑAR E IMPLANTAR UN NUEVO SISTEMA DE GESTIÓN PARA EL MANTENIMIENTO DE LOS EDIFICIOS MUNICIPALES

Gauza bera egingo da udal eraikinekin (Leidor, Kultur Etxea, Liburutegia, Musika Eskola…) beharren eta lehentasunen inguruko azterketa egingo da eta urteroko plangintza garatu, aurrera eraman beharreko lanak sistematizatzeko.

Se hará lo mismo con los edificios municipales (Leidor, Casa de Cultura, Biblioteca, Escuela de Música…). Se realizará un estudio sobre las necesidades y prioridades y se desarrollará una planificación anual para sistematizar los trabajos que es necesario llevar a cabo.



# 2 HERRIKO IRISGARRITASUNA ETA MUGIKORTASUNA HOBETZEA

## MEJORAR LA ACCESIBILIDAD Y MOVILIDAD DEL MUNICIPIO



Pertsonak erdigunean kokatzen dituen Tolosa eraiki nahi dugu, irisgarriagoa eta oinezkoentzako espazio gehiago izango dituena, mugikortasun jasangarria sustatuko duena.

Queremos construir una Tolosa en la que las personas sean el eje central. Un municipio más accesible, con más espacios para las y los peatones y que fomente la movilidad sostenible.

## 2.1 IRISGARRITASUN PLANA IDAZTEA ETA LEHENTASUNAK IDENTIFIKATU ETA GAUZATZEA
### REDACTAR EL PLAN DE ACCESIBILIDAD E IDENTIFICAR Y EJECUTAR LAS PRIORIDADES

Irisgarritasun Plana egingo da lehentasunak identifikatzeko eta atzemandako beharren arabera proiektu berriak sustatzeko. Zehaztutako lehentasun horien baitan garatuko dira hirigintza lanak eta kaleen zaharberritzeak.

Se redactará el Plan de Accesibilidad para identificar las prioridades y fomentar nuevos proyectos acorde a las necesidades detectadas. Los trabajos de urbanismo y la regeneración y rehabilitación de las calles se llevarán a cabo en base a las prioridades definidas.




## 2.2 MUGIKORTASUN PLANEKO LEHENTASUNAK IDENTIFIKATU ETA GAUZATZEA
### IDENTIFICAR Y EJECUTAR LAS PRIORIDADES DEL PLAN DE MOVILIDAD

Genero ikuspegia barne hartuta, espazio publiko seguruagoa bilakatzeko, oinezkoei protagonismo handiagoa emateko eta garraio publikoa sustatzeko garatu da Mugikortasun Plan berria. Lehenik eta behin bertan jasotako ekimen eta neurriak aztertuko dira eta lehentasunak ezarri, ondoren proiektuak gauzatzeko.

Horien artean, Rondilla kalearen zaharberritzea lehenetsiko da oinezkoei lehentasuna emateko; errepide eta espaloia maila berean jarriko dira merkataritza ere sustatzeko.

El nuevo Plan de Movilidad se ha desarrollado integrando el punto de vista de género, con el fin de hacer los espacios públicos más seguros, dar mayor protagonismo a las y los peatones y fomentar el transporte público. En primer lugar, se estudiarán las iniciativas y medidas recogidas en él y se establecerán prioridades para después llevar a cabo los proyectos.

Entre ellos, se priorizará la renovación de la calle Rondilla para dar un mayor protagonismo a las y los peatones. La carretera y las aceras se pondrán al mismo nivel para mejorar la accesibilidad y fortalecer, también, el comercio local.

## 2.3 APARKALEKU BEHARRAK AZTERTU ETA IRTENBIDEAK PROPOSATZEA
ESTUDIAR LAS NECESIDADES DE APARCAMIENTO Y PROPONER SOLUCIONES



Datozen urteetan aurrera eraman nahi diren proiektuak gauzatzeko, Zumardi Txikia, esaterako, beharrezkoa da bertako aparkalekuari irtenbidea ematea. Herriko beste zenbait eremutan ere aparkaleku beharra dago eta hortaz, aparkalekuari buruzko azterketa egingo da tokian tokiko irtenbideak proposatzeko.

Para dar solución al problema del aparcamiento y analizar las necesidades a este respecto en diferentes zonas del municipio, se llevará a cabo un estudio a fin de plantear soluciones que nos permitan, entre otros, llevar a cabo los proyectos contemplados en este plan, como por ejemplo el de Zumardi Txiki.

# 3 HIRI-BERRONERATZE INTEGRATUA BULTZATZEA
FOMENTAR LA REGENERACIÓN URBANA INTEGRADA

Tolosako eremu ezberdinak berreskuratu, txukundu eta herritarren eskura jarri nahi dira momentuko zein etorkizuneko beharrei erantzuteko.

Se busca recuperar, acondicionar y poner a disposición de la ciudadanía distintas zonas de Tolosa con el fin de responder a las necesidades actuales y futuras.



# 3.1 ZUMARDI TXIKI BERRESKURATZEA
## RECUPERAR ZUMARDI TXIKI

Zumardi Txiki herritarren eskura jartzea legealdiko proiektu estrategikoenetarikoa izango da. Lehenik eta behin, aparkaleku arazoari irtenbidea emateko aukerak aztertuko dira eta herritarrekin Tolosatzen prozesuan partekatutako proiektua garatuko da.

Aparkaleku arazoari irtenbidea eman bitartean, pixkanaka-pixkanaka eremua herritarrengana zabalduko da ekitaldi ezberdinak bertan antolatuz.

Poner Zumardi Txiki a disposición de la ciudadanía será uno de los proyectos estratégicos de la legislatura. En primer lugar se estudiarán las alternativas para dar solución al problema de aparcamiento y se desarrollará el proyecto ya compartido con la ciudadanía en el proceso Tolosatzen.

Mientras se da solución al problema de aparcamiento, dicho espacio se abrirá poco a poco a la ciudadanía, organizando en él distintas actividades y eventos.







# 3.2 ERAIKITAKO ETXEBIZITZA ERAIKINAK BIRGAITZEKO ETA BERRERABILTZEKO NEURRIAK HARTZEA
## TOMAR MEDIDAS PARA REHABILITAR Y REUTILIZAR EDIFICIOS DE VIVIENDAS CONSTRUIDAS

Udalak etxebizitza hutsak birgaitzeko programa bat martxan du horiek merkaturatu eta alokairuan jar daitezen. Etxebizitza hutsei buruzko azterketaren emaitzak kontuan izanda diru-laguntza programa egokituko da ahalik eta etxebizitza gehien programan txertatzeko eta bereziki gazteei alokairu aukera berriak eskaintzeko.

El Ayuntamiento tiene en marcha un programa para rehabilitar las viviendas vacías con el fin de que salgan al mercado y se alquilen. Teniendo en cuenta los resultados del estudio realizado sobre las viviendas vacías se adecuará el programa de ayudas para incluir en él el mayor número de casas posible y especialmente para ofrecer nuevas oportunidades de alquiler a las y los jóvenes.



# 3.3 SAN ESTEBAN EREMUAREN BERRONERATZEA
## REGENERACIÓN DE LA ZONA DE SAN ESTEBAN

Jada martxan dago etorkizuneko San Esteban auzoa irudikatu eta definitzeko Plan Berezia. Bertan gauzatu beharreko proiektuen planifikazioa egingo da, betiere, helburu hartuta auzo lasaia eta kulturalki bizia izatea. Halaber, auzoaren berritzearekin batera udalerriak dituen etxebizitza beharrei erantzuna eman nahi zaie etxebizitza babestua eta alokairua bultzatzeko helburuarekin.



Ya está en marcha en Plan Especial para definir el futuro del barrio de San Esteban. Se realizará la planificación de los proyectos a llevar a cabo en el barrio, teniendo siempre, como objetivo, que sea un barrio tranquilo y culturalmente vivo.

Asimismo, junto con la regeneración del barrio se busca dar respuesta a las necesidades de vivienda que tiene el municipio, con el fin de fomentar la vivienda protegida y en alquiler.

# 3.4 RC-2 GUNEAREN BERRONERATZEA
REGENERACIÓN DE LA ZONA RC-2

Gorriti plazaren eremua biziberritu eta txukunduko da eta gainerako eremu osoa berroneratzeko urratsak egingo dira.

Kudeaketa konplexua duen eremua bada ere, azken legealdian Ur Agentziarekin urteetan izandako zailtasunak gaintzea lortu zen eta beraz, datozen urteetan pauso berriak emango dira. Horretarako lau urterako plangintza egingo da.



Se rehabilitará y adecuará la zona de la plaza Gorriti y se realizarán avances para la regeneración de su entorno.

A pesar de ser una zona de compleja gestión, durante la última legislatura se lograron superar las dificultades existentes durante años con la Agencia del Agua y por tanto, en los próximos años se realizarán nuevos avances. Para ello se realizará una planificación de cuatro años.

# 3.5 SANTA LUZIA-GUADALUPE EREMUAREN BERRONERATZEA
REGENERACIÓN DE LA ZONA SANTA LUZIA-GUADALUPE



Egun eremu degradatua dena berreskuratuko da.

Se regenerará la zona hoy en día degradada.

# 4 UDAL EKIPAMENDUEN PLANGINTZA GAUZATZEA
## REALIZAR LA PLANIFICACIÓN DE LOS EQUIPAMIENTOS MUNICIPALES

## 4.1 EKINTZEN ETA OBREN PROGRAMAZIOA EGITEA FASEKA
### REALIZAR PROGRAMA DE ACTIVIDADES Y OBRAS POR FASES

Tolosako azpiegitura sozio-kulturalei buruz egindako azterketa oinarri hartuta, udal eraikinak egokitu eta berrituko dira zerbitzuak hobetu eta berriak martxan jartzeko, horien erabilera optimizatzeko eta herritarrei zerbitzu hobea eskaintzeko helburuarekin.

Kirol eta aisialdi aukera berriei dagokienean, azpiegitura berriak bultzatuko dira: Usabalgo 3.fasea eta Berazubiko estadioaren osatzea eta berrantolaketa.

Tomando como referencia el estudio realizado sobre las infraestructuras socio-culturales de Tolosa, se adecuarán y renovarán los edificios municipales con el objeto de mejorar los servicios actuales y poner en marcha otros nuevos, optimizar su uso y ofrecer a la ciudadanía un mejor servicio.

En lo que respecta a las nuevas oportunidades de ocio y deporte, se fomentarán nuevas infraestructuras: se realizará la tercera fase de Usabal y se completará y reorganizará el estadio de Berazubi.



Udal eraikinen inguruko azterketa mardula da, urte askotarako inbertsioak eskatuko dituena. Horregatik, garrantzitsua da lehentasunak zehaztea eta horien baitan obren plangintza bat egitea.

Udal liburutegia eta Kultur Etxea berrantolatzea eta Musika eskola berregokitzea lehentasunezkoak izango dira.

El estudio sobre los edificios municipales es laborioso, y pide inversiones para muchos años. Por ello es importante definir las prioridades y realizar una planificación acorde a ellas.

Reorganizar la biblioteca municipal y la Casa de Cultura y readaptar la Escuela de Música será prioritario.

# 4.2 LEHEN FASEKO PROIEKTUAK IDAZTEA
## REDACTAR LOS PROYECTOS DE LA PRIMERA FASE



Urtero-urtero egingo diren obren plangintza egiteaz gain lehen fasean zehaztutako eta lehenetsitako proiektuak idatziko dira: Udal Liburutegia, Kultur Etxea eta Musika Eskola.

Además de realizar la planificación de las obras que se ejecutarán cada año, se redactarán los proyectos definidos y recogidos en la primera fase: la biblioteca municipal, la Casa de Cultura y la Escuela de Música.

# 5 UDALERRIKO INGURUMEN JASANGARRITASUNA HOBETZEA
## MEJORAR LA SOSTENIBILIDAD MEDIOAMBIENTAL DEL MUNICIPIO



Ingurumenaren kontserbaziorako neurri zehatzak hartzea eta ingurumenaren zaintzari buruz kontzientzia eta ardura hartzea lehentasunezko beste gaietako bat izango da datozen urteetan.

Ondare naturala eta gure landa eremua babesteaz gain, aldaketa klimatikoaren aurkako neurri zehatzak eta trantsizio energetikoaren aldeko erabaki garrantzitsuak ere hartuko dira.

Tomar medidas concretas para la conservación del medioambiente y tomar conciencia y responsabilidad sobre el cuidado del mismo será otro de los temas prioritarios durante los próximos años.

Además de proteger el patrimonio natural y nuestros entornos rurales, también se tomarán medidas concretas contra el cambio climático e importantes decisiones a favor de la transición energética.

# 5.1 ALDAKETA KLIMATIKOAREN AURKAKO PLANGINTZA EGITEA

## REALIZAR UNA PLANIFICACIÓN CONTRA EL CAMBIO CLIMÁTICO

Tolosar guztion ardura da aldaketa klimatikoari aurre egitea, horretan eredugarri izan behar du Tolosako Udalak eta aldaketa klimatikoaren aurkako plangintza garatuko da partaidetza hizpide hartuta.

Hacer frente al cambio climático es responsabilidad de todas y todos los tolosarras; el Ayuntamiento de Tolosa debe dar ejemplo y para ello desarrollará un plan contra el cambio climático, tomando como base la participación.



# 5.2 UDAL ERAIKINEN, IBILGAILUEN ETA ARGIZTAPEN PUBLIKOKO INSTALAZIOEN ERAGINKORTASUN ENERGETIKOA HOBETZEA

## MEJORAR LA EFICIENCIA ENERGÉTICA DE LOS EDIFICIOS Y VEHÍCULOS MUNICIPALES Y LAS INSTALACIONES DEL ALUMBRADO PÚBLICO

LED argiak ezartzen jarraituko da udal eraikin eta argiztapen publikoan eta elektromugikortasunaren aldeko apustua egingo da. Horretarako udal ibilbigailuak elektrikoak izan daitezen sustatu eta kargarako puntuak ezarriko dira.

Eguzki panelak ere jarriko dira udal eraikinetan eta herritarrek ere eraginkortasun energetikoaren alde egin dezaten hobariak eskainiko dira.



Se seguirán instalando luces LED en los edificios municipales y en el alumbrado público y se realizará una apuesta por la electromovilidad: se impulsará el cambio en el parque de vehículos municipales a fin de que progresivamente estos sean eléctricos y se instalarán puntos de carga.

Asimismo, se instalarán placas solares en los edificios municipales y se ofrecerán bonificaciones para que la ciudadanía abogue por la eficiencia energética.

# 5.3 LANDA AUZOETAKO ETORKIZUNAREN AZTERKETA EGITEA
## REALIZAR UN ESTUDIO SOBRE EL FUTURO DE LOS BARRIOS RURALES

Landa auzoen etorkizuna bermatzeko eta horiek bizirik mantentzeko azterketa egingo da. Azterketaren emaitzekin Ekintza Plana garatuko da, auzotarrekin elkarlanean.

Se realizará un estudio para garantizar el futuro de los barrios rurales y mantenerlos con vida. Con los resultados obtenidos, se realizará un Plan de Acción en colaboración con las y los vecinos de los barrios.



# 5.4 KONTSUMO ARDURATSUA ETA HONDAKINEN KUDEAKETA HOBETZEA
## MEJORAR EL CONSUMO RESPONSABLE Y LA GESTIÓN DE RESIDUOS



Hondakinen kudeaketa hobetuko da eta gaikako bilketa datuak hobetzeko sentsibilizazio eta kontzientziazio kanpaina berriak gauzatuko dira.

Halaber, gaikako bilketa azken urratsak izanik, hondakin gutxiago sortzeko eta berrerabiltzeko kanpainak ere indartuko dira eta kontsumo arduratsua sustatu.

Se mejorará la gestión de residuos y se llevarán a cabo nuevas campañas de sensibilización y concienciación para mejorar los datos de la recogida selectiva.

Asimismo, se reforzará la reutilización y se promoverá el consumo responsable a fin de generar menos residuos.

# 5.5 ZARATAREN ORDENANTZA GARATZEA
## DESARROLLAR LA ORDENANZA DE RUIDOS

Kutsadura akustikoa murrizteko helburuarekin zarataren ordenantza egingo da, arazoei konponbidea emateko plangintza egin eta jarduera ezberdinak aurrera eramateko.

Se elaborará la ordenanza de ruidos con el objeto de reducir la contaminación acústica y se realizará una planificación que dé respuesta a los problemas existentes y se llevarán a cabo distintas acciones.



# 5.6 PLAN OROKORRAREN BERRIKUSPENA MARTXAN JARTZEA
## PONER EN MARCHA LA REVISIÓN DEL PLAN GENERAL

Hiri Antolamendurako Plan Orokorra zaharkituta dago eta berritu egingo da. Dokumentu berrian Ospitale publikorako lurrak zehaztuko dira eta berritu bitartean, beharrezkoak diren aldaketak egingo dira, besteak beste, nekazal jarduera errazteko.

Se renovará el Plan General para la Ordenación Urbana que está ya obsoleto. En el nuevo documento se concretarán los terrenos para el Hospital público y mientras se renueva el Plan, se realizarán los cambios necesarios, entre otros, para facilitar la actividad agraria.




TOLOSa